

15 – INDARREKO PLANGINTZAN ERAGINAK

Lurralde Plan Sektorial honetako xedapenek lotetsi egingo ditu aukeratutako kokalekuek ukitzen dituzten hirigintza plangintzak, eta horiek xedapen haietara egokitu beharko dira aurreneko berrikuspenean edo aldaketan. Zentzu horretan, LAELeko 22. artikuluan aipatzen da Lurralde Plan Sektorialen xedapenek lotetsiko dituztela lurzoruaren inguruko hirigintza plangintzak; izan ere, Plan haiek udalerrria gainditu egiten dute, udalerrriarenak bakarrik ez diren interesak ukitzen ditu. Eta Plan horiek ezin hobeto daude Antolamendurako lldoek eta, bere kasuan, onartzen diren Lurralde Plan Partzialetan sartuta.

Ondorioz, Lurralde Plan Sektoriala behin betiko onartzeko akordioak zehaztuko du hirigintza planak zein puntutan aldatuta geratzen diren; dena den, udalek prozedurak martxan jar ditzakete, xedapen horiek jasotzeko (LAEL, 15-2 artikulua). Plana behin betiko onartzeak ekarriko du udalerrietako edo ukitutako zonetako hirigintza plangintzako tresnak egokitzea, LPSko proiektuak gauzatzearekin bat ez badatoz. Edozein modutan, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak proiektuak onartzeak ahalbidetuko du, beti, proiektuetan aurreikusten diren obrak burutzea.

Horrenbestez, LPSn aukeratutako kokaleku eolikoaren eragina jasango duten udalerrietako hirigintza plangintzetan sartuta geratuko da eta, hortaz, baimenduta energia eolikoa hartzeko eta transformatzeko erabilpena edo jarduera, erabilpenen inguruko erregimena barne.

Lurzoruari buruzko Legean araututako hirigintza planak moldatu egin beharko dira energia eolikoaren Lurralde Plan Sektorial honetan ezarritakora; horretarako, urtebeteko epea egongo da. Horrela agintzen du Lurralde Antolamendurako Euskadiko maiatzaren 31ko 4/1990 Legeak (9. artikulua). Edozein modutan, Lurralde Plan Sektorialeko xedapenak, ordenazio planoetakoak barne, argitaratzen diren momentutik bertatik udalerrietako planen eta Arauen xedapenen gainetik egongo dira, baita Plan honetako xedapenetara egokitu ez badira ere.